

# Sartu-irten bat auzoaren etxean

**Dabid Anaut**

*Euskara teknikaria*

koskagain@gmail.com

Sarrera-data: 2011-10-17 | Onartze-data: 2011-12-22

**HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien IV. edizioko bigarren saria (2011)**

**Laburpena.** Noraino erabakitzen du kulturak, eta noraino naturak, une jakin batean euskaraz edo erdaraz eginen dugun? Hizkuntzaren normalizaziotik normalean kulturari begiratu diogu, gizarteari. Eta biologiari ere begiratu bagenio? Ez gara orain "hizkuntza-leialtasunaren", "hizkuntza-kalitatearen" edo "euskaltzaletasunaren" genea bilatzen hasiko, baina gerta liteke hizkuntza-portaeran gizarteak duen ukaezinezko eta funtsezko pisuaren ondoan bestelako zer edo zer ere aurkitzea. Artikuluak aldarrikapen zehatz baten alde egiten du: ontzat eman ditzagun mintzairari eta hizkuntza-errealitate guztiei begiratzeko ikuspegi guztiak. Ildo honetatik soziolinguistikaren talaiatik biolinguistikari arreta berezia jartzen zaio, eremu horretatik soziolinguistikari egin dakioken balizko ekarpenaren bila. • *Hitz-gakoak:* *biolinguistika, soziolinguistika, mintzaira, hizkuntza-komunitatea, hizkuntzaren jabekuntza.*

**Abstract. Dropping in on the neighbours.** To what extent do culture or nature decide whether we will be speaking in Basque or Spanish/French at a specific moment? From the perspective of language normalisation we have tended to look to culture, to society. And what if we were to look to biology, too? We would not be starting to look for the gene of "language loyalty", "language quality" or "fondness of Basque", but one might well come across something else alongside the undeniable and significant weight that society wields in language behaviour. This paper makes a specific claim: let us view all the perspectives for seeing all languages and language realities in a favourable light. In this respect, special attention is paid to biolinguistics from the watchtower of sociolinguistics, in the quest for the potential contribution that could be made to sociolinguistics from this sphere. • *Key words:* *biolinguistics, sociolinguistics, language, speech community, language acquisition.*

## 1. SARRERA

**I** Euskaldun orok filologo bat dauka bere baitan. Ia esaera zaharraren kategoria lortu du esaldi horrek gure artean, errepikatuaren errepikatuaz. Baina akaso hori bezain egia izan liteke euskaldun ororen baitan soziolinguista bat bizi dela. Iaiok gara euskaldunok etimologiarekin, zuzentasunarekin, gramatikarekin eta jatortasunarekin lotutako iruzkinak egiten eta baita dogmak ezartzen ere, baina ez da harrizkoa hurkoa euskararen egoera soziolinguistikaren eta horren mila adar eta alderdien gaineko balorazioak egiten entzutea, eta are proposamen ausart askoak egiten ikustea ere.

Era estu, lauso eta akaso murriztaile samarrean filologia eta soziolinguistika izendapenekin jantzi ditugu euskarari begiratzeko gure artean ohikoak diren bi ikuspegi horiek. Ez dira bakarrak, baina gurean indarrean daudela esan genezake. Bada, ordea, hizkuntzari begiratzeko bestelako leihorik, esate baterako biolinguistika dei genezakeen ikuspegia edo enfokea. Aipatutako hiruen artean, euskaldunok eskaintzen diogun arretari dagokionez bederen, azken hori dugu bazterrekoena gure ustez, baina ez horregatik interes gutxikoa edo ahaztu beharrekoa.

Hiru ikuspegi horiez, eta hiruen arteko harremanaz, hitz egin nahi dugu lan honetan; soziolinguistikaren talaiatik, baina ahizpa txikiari, biolinguistikari alegia, arreta berezia jarrita eta, bidenabar, eremu horretatik soziolinguistikari egin dakioken balizko ekarpenaren bila.

Soziolinguistikari, izan ere, beste ikuspegiei ere begiratzea interesatzen zaio: euskara bertatik bertara begiratzeko moduak, konparaziora, hitzaren soinekoari, azalari, koloreari, doinuari, musikari... begiratzen dion horrek, hizkuntzaz dugun ikuspegi soziolinguistikoa humanizatu egin dezake, eta baita "erreal" bihurtu ere. Ez dezagun ahaztu gure azterketa zorrotz, deskriptibo, tekniko eta zientifikoaren jomuga bizirik dagoen hizkuntza dela, hitzuna ukitzen eta hunkitzen duen gertakari soziala dela, eta gure gogoetetan eta deskribaketetan jasotzen dugun hori gure bizitzako beste behar askotarako ezinbesteko baliabide praktikoa, eraginkor, konplexu eta bizia dela, neurri batean pertsona sentiarazten gaituena.

Eta, bestalde, soziolinguistikarentzat biolinguistikari begiratzea ere komenigarria delakoan gaude. Gizartearen eta hizkuntzaren arteko el-karreragina dugu soziolinguistikaren aztergaia, baina biolinguistikak eman ditzakeen ezagupenak ederki balia litzake, testuinguru soziala batere ukatu gabe alderdi indibidual, mental eta psikologiko ukazina duen fenomeno aztertzeko, ulertzeko, eta, zergatik ez, aldatzeko. Mintzaira ardatz dugula, nor garen eta zer garen ulertzen lagun diezaguke

**Mintzaira ardatz  
dugula, nor  
garen eta zer  
garen ulertzen  
lagun diezaguke  
biolinguistikak;  
baita, zertxobait  
zehazkiago,  
hizkuntzen —eta  
hizkuntza  
gutxituen—  
gaineko  
aurreiritzi  
batzuen aurkako  
borrokan ere,  
esate baterako.**

biolinguistikak; baita, zertxobait zehazkiago, hizkuntzen —eta hizkuntza gutxituen— gaineko aurreiritzi batzuen aurkako borrokan ere, esate baterako.

## 2. HIRU IKUSPEGI

**I**  
Sarreran aipatu den eskemarekin lotuta, proposamen bat eginen dugu. Honakoxea: hizkuntzari begiratzeko moduak, euskarari begiratzeko moduak, hiru multzotan bil ditzakegu. Hiru modu, molde, eredu, talaia, jarrera, ikuspegi, abiapuntu... edo nahi den bezala esan: *Kanpotik, bertatik bertara*, eta *barrutik*, era erraz batean esanda. Berehala azalduko dugu bakoitza zer den.

Aipa dezagun, azalpenak ematen hasi baino lehen, hiru ikuspegi planteamendu hau zuritzeko badagoela gure ustez nahikoa arrazoi praktiko, erreal, bibliografiko eta bestelako, baina neurri batean intuizio bati erantzuten diola. Ez da zentzugabea, beraz, baina ezta diziplinen edo ikerketa-ildoen berrantolaketa akademiko edo antolakuntzazko bat ezinbestekotzat jotzen duen planteamendua ere.

Esan beharrik ez dago, hizkuntzaren inguruan nolabait ari diren diziplinak, ikerketa-ildoak, erakunde akademikoak nahiz sozialak eta bestelako eragileak zerrendatuz gero, beste era bateko eskemak atera litezke, errealak eta baliozkoak, hizkuntzari begiratzeko moduen berri emanen liguketenak. Diziplina eta ikuspegi horiek guztiek, multzo independenteak baino gehiago, ziur asko continuum bat osatzen dute, haien arteko muga lausoekin. Gure proposamenak, nolahi ere, erreal iruditzen zaigun baina esplizitua ez den egoera bat jaso eta ikusarazten lagundu nahi du, eta, bide batez, ikuspegi arteko sintesia posible dela aldarrikatu, nahi eta behar baino ohikoagoa izaten den elkar ukatzearen edo elkar arbuizatzearen aurrean.

Eta orain, agindu bezala, hiru ikuspegi horien gainean hitz bat edo beste egin dezagun, labur bada ere, hizkuntzari “kanpotik” begiratzen dion ikuspegi horretatik hasita. Urrutira joan gabe, euskaratik abiatuta osatuko dugu planteamendua.

### 2.1 Kanpotik: taldearen itzala

Bizipen linguistikoak, eta hizkuntzazko gaien inguruko pertzepzioak eta esperientziak, sarritan gatazkak zipriztinduta gertatzen dira, batez ere bi hizkuntza ezberdin edo gehiago une eta toki berean agertzen direnean, edota hizkuntza beraren bi aldaera elkarrekin lehian dabiltzan. Hizkuntza-aniztasuna ohiko egoera da mundu osoan barrena,

eta, aitortu beharra dago, diskurtso onbera eta harmoniazaleak gorabehera, aniztasun horrek dakartzan auziak eta gatazkak ere ugariak eta askotarikoak dira. Ez dira beti tragikoak, baina kudeatu beharreko egoera asko sortzen zaizkio hiztunari eta hiztun-taldeari edo hiztun-komunitateari.

Testuinguru horretan, ez da harrizkoa hiztun askok hizkuntzarekiko dituzten kezak gaur egun soziolinguistika deitzen dugun horren terminoetan eta parametroetan kokatzea, edota gaur egun indartzen ari den hizkuntza-ekologiaren parametroetan, beste inon baino gehiago. Norberaren hizkuntza propioan hitz egiteko edo bizitzeko ezintasuna nozitzen duenak, normala den bezala, arreta handiagoa jarriko dio bere inguru hurbilean dituen senide, lagun, lankide edo herrikideen hizkuntza-gaitasunari eta hizkuntzaren erabilerari, *H. neanderthalensis*aren edo *A. afarensis*aren balizko hizkuntza-gaitasunari baino, edo izen-sintagmaren errealitate fisikoa zein den zehazteari baino.

Geurea bezalako hizkuntza gutxitu bateko kideontzat, eskuarki, hizkuntzak eragiten dizkigun gogoeta gehienak euskara erabiltzeko aukerekin lotuta daude, euskara edo erdara erabiltzeko hautuarekin, testuinguru eta egoera jakinetan euskaraz egiteak sortuko dizkigun emozioekin, eta gisa horretako beste hamaika konturekin.

Horiek guztiak bizitzeko norberak dituen erak ez dira homogeneousak, eta gogoeta eta sentimendu horien intentsitatearen eskala oso aldakorra da hiztun batetik bestera; baina, oro har, esan genezake ez direla nolana hiko edo gutxieteko moduko kontuak, eta, horien ondoan, bazter samarrekoak irudituko zaizkiola hainbati hizkuntzaren gaineko bestelako gogoeta batzuk, hala nola mintzaira bera nola eta noiz sortu zen, nolako eboluzioa izan duen, edota hizkuntza-gaitasun hori instintu bat den edo beste edozer gauza ote den.

## **2.2 Bertatik bertara: “Nor zaitugu?”**

“Nor zaitugu?” esaldia sekuentzia akustiko bat dugu, espektrografo baten bitartez jaso dezakeguna. Edo galderazko perpausa bat, galdetzaile batek eta NOR-NORK saileko adizki batek osatua. Baina, inondik ere, hori baino gehiago ere bada. Bestela, nekez uler genezake hori entzuteak inor emoziona lezakeenik. Eta halaxe gertatzen da. ETBren dokumental batean euskal kulturako pertsona ezagun bat elkarrizketatu zuten behin, eta bertan azaldu zigun Baztango etxe bateko emakumeak etxean esaldi horrekin hartu zuela. Ez zion “nor zara zu?” galdetu, “nor zaitugu?” baizik. Horrek, eta horrek bakarrik, berebiziko emozioa eragin zion entzuleari, eta ikustekoa zen egoera azaltzekoan agertu zuen sentimendua

---

**Geurea bezalako  
hizkuntza gutxitu  
bateko  
kideontzat,  
eskuarki,  
hizkuntzak  
eragiten dizkigun  
gogoeta gehienak  
euskara  
erabiltzeko  
aukerekin lotuta  
daude, euskara  
edo erdara  
erabiltzeko  
hautuarekin,  
testuinguru eta  
egoera jakinetan  
euskaraz egiteak  
sortuko dizkigun  
emozioekin, eta  
gisa horretako  
beste hamaika  
konturekin.**

eta emozioa. Zinez, hizkuntza forma partikular batek, atzeko edo azpiko irakurketa soziolinguistiko edo biolinguistiko apartekorik gabe, hiztun bat espantuka eta ufaka jar dezake, entzundakoaren gozatu hutsez.

Aurreko paragrafoetan azaldu dugun ikuspegi soziolinguistikoan lerratuta egon gabe, hortaz, bada hizkuntzari begiratzeko beste modu bat. *Bertatik bertarakoa* deitu dugun hori. Euskarari hasi eta euskarari bukatzen dela esan genuke, eta euskararen egoerari baino gehiago, euskarari berari eta euskarak berak gure zentzumenei eskaintzen dizkion “produktuei” begiratzen die. Bada gurean, euskara kinka larrian dago-elako kontua larritasun handiz edo batere larritasunik gabe biziz, edo agian horretan batere erreparatu gabe, euskarak hizkuntza partikular gisa gozatzeko, harritzeko, txunditzeko, dibertitzeko, jostatzeko... ematen dituen aukerei erreparatu diona. Literatura, bertsozintza, hitz-jokoak, etimologia, hiztegia, esamoldeak, bitxikeriak... Non bilatu eta non gozatu bada, hartara jarritz gero, hizkuntzaren egoera sozialaren erabateko abstrakzioa eginda. Horietaz gozatzen dakienak, jakina, hizkuntzaren ikuspegi soziala, historikoa, kulturala eta politikoa izan dezake berdin-berdin, eta baita, nahi bada, euskararen militante izan ere.

Batak ez du bestea kentzen, beraz, eta hizkuntzari begiratzeko moduez planteatzen ari garen sailkapen horri eusteko moduan gaudela uste dugu. Esan nahi genuena da, azken batean, bestelako begiratzeko modu hori, hizkuntzan hasi eta hizkuntzan bukatzen dela esan dugun hori, litekeena dela, eta izan badela. Are gehiago, hizkuntzaren auzia beti tragedia moduan eta era gatazkatsuan bizi ez dezagun, une askotan lagungarria eta ezinbestekoa ere izan liteke. Kontuan izanda, gainera, berreskuratu, biziberritu eta osasuntsu ikusi nahi dugun hizkuntza hori, erabiltzeko nahi dugula, harekin ere gozatzeko.

### 2.3 Barrutik

Eta badugu hizkuntzari begiratzeko beste modu bat, aurreko pasartetan azaletik aipatu duguna. Hizkuntzari, hizkuntzei, *barruko atetik* begiratzen diela esan genezake, eta gaur egun biolinguistikatzat jotzen den horren jiran dabil, psikolinguistika, neurolinguistika eta beste batzuk, zenbait alderditan bederen, hurbil samar dituen arren. Hizkuntza partikularrei baino gehiago, gizakion lengoaiari begiratzen dio, begirada bereziki haren barrunbeetan jarrita. Hizkuntza naturalak, euskara kasu, barru alde horretara begiratzeko leihotzat har genitzake, besteak beste.

Izena, biolinguistika, akaso estu samar gelditzen zaio ikuspegi horri, agian izenarekin ohitu gabe gaudelako eta agian norbaitek gustuko ez duen konnotazioa hartuko diolako. Nolanahi ere, terminoa zabal samar

ulertu nahi dugu guk. Bi hitz esanen ditugu horren inguruan, ikusmolde horren berri labur-labur emateko.

Esan ohi da soziolinguistika diziplina berria dela, XX. mendeko erdialdera sortua. (Soziolinguistika Klusterra, 2010: 31). Bada, hura bezain berria edo are berriagoa da biolinguistika. Egia da, noski, batak zein besteak lantzen dituzten gaiak eta erantzun nahi dituzten galderak aspaldikoak direla, eta asko direla diziplina horien aurrekaritzat har litezkeen lanak eta ekarpenak. Baina diziplina zientifiko gisa, ikerketa era metodikoago eta sistematizatuago batean garatzen duten diziplina gisa, azkeneko hamarkadetan garatu dira.

Biolinguistikak baditu galdera nagusi batzuk, oraingoz erantzun beterik eta osorik gabeak. Ernst Mayr biologo entzutetsuak proposatu zuen auzi zientifiko nagusiak *zer*, *nola* eta *zergatik* galderei erantzunez konpontzen direla. Eskema horri jarraiki azaldu dute William H. Calvinek (2000) eta Guillermo Lorenzok (2006), biak ere biolinguistikaren alorreko bi egile esanguratsu, biolinguistikaren aztergaia. Honela labur dezakegu:

- Mintzaira deitzen dugun hori zer den —alderdi soziala eta kulturala alde batera utzita— eta, esaterako, gure ageriko hizkuntzazko adierazpenen atzean dauden printzipioak eta egitura zein diren.
- Haurra hizkuntzaz nola jabetzen den, eta jabekuntza horretan zenbat den genetika, zenbat esperientzia, edo zenbat bestelako faktoreak.
- Nola ekoizten eta jasotzen den hizkuntza.
- Nola lotzen diren mintzaira eta garuna.
- Hizkuntza-gaitasuna eta gramatiketan erabiltzen diren kontzeptuak nola azaldu daitezkeen hiztegi fisikalista baten bitartez.
- Hizkuntzarako gaitasun hori noiz eta nola sortu zen; eta, halaber, hori guztia zergatik sortu zen.

Nolako probak, metodoak eta baliabideak erabiltzen ditu biolinguistikak bere diziplinan sortzen diren eredu, hipotesi edo proposamen zientifikoak frogatzeko? Askotarikoak dira, aztergaiaren izaera zabala dela eta espero litekeen moduan: hizkuntza ezberdinetako lekukotasunak; gramatika unibertsaletik eta konparatibotik eratorritakoak; umeak hizkuntzaz jabetzeko prozesua; azterketa psikolinguistikoak; pertzepzio-azterketak; fonetika artikulatorioa eta akustikoa; burmuinaren lesioak eta gaitzak (afasiak...); burmuin zatituak; linguistikoki isolatutako umeak; garapenaren asaldatzak; jarduera elektrikoa (ERP), positroi igorpenaren bidezko tomografia (PET), erresonantzia magnetikoren bidezko irudikatzea (MRI); asaldur genetikoak; bikien azterketa; gorren

---

**Euskararen  
inguruan lanean  
ari diren  
erakundeek eta  
pertsonak, baita  
korpus hutsean  
ari direnek edo  
euskararen  
alderdi “ludiko”  
eta  
jostagarriarekin  
ari direnek ere,  
ikuspegi  
soziolinguistiko  
nabarmena  
eransten diote  
beren jardunari  
gure ustez.**

hizkuntza; itsuen hizkuntza; jakintsu linguistikoak; hizkuntza pidginak eta kreolerak (Jenkins, 2000: 322).

Bibliografia ikaragarria osatu da biolinguistikak jorratzen dituen gaien inguruan, eta, tartean, ibilbide horretan, geure burua kokatzen lagundu beharko liguketean hainbat ideia landu eta jaso dira. Espezie gisa kokatzeko, eta baita hiztun-komunitate partikular gisa eta norbanako gisa kokatzeko ere. Hortik dator, besteak beste, soziolinguistika-erentzat auzo-diziplina horrek izan lezakeen interesa.

## 2.4 Ikuspegi soziala, indarrean

Hizkuntzari begiratzeko hiru modu aurkeztu ditugu, horrenbestez, modu gordin samarrean bada ere. Hiru eredu, talaia edo ikuspegi. Esan-en genuke hiru horietatik *kanpotik* begiratzen duena dela, sinplifikatze aldera soziolinguistikaren lurraldean koka genezakeen hori, gaur egun Euskal Herrian, eta zehazkiago euskaldunon artean eta bereziki euskalgintzan, indarrean dagoena. Eta horren ondoan eta ondoren, *bertatik bertarakoa*, hizkuntzaren “ageriko produktuei” kontsiderazio estralinguistiko gehiegirik gabe begiratzen diona, nahiz eta esaldi horrek ñabarduraren bat eskatzen duen. Izan ere, lehen esan dugun bezala, hizkuntzaz eta hizkuntzaren produktuez gozatzen duten horietako gehienek izanen dute ziur asko maite duten horren egoerari buruzko neurri bateko edo besteko kezka.

Dezentez bazterrekoagoa iruditzen zaigu, azkenik, hiztun-komunitatean sortzen duen arretari dagokionez bederen, modu agian behartu samarrean “ikuspegi biolinguistiko” deitzen dugun hori, hizkuntzari barruko atetik begiratzen diona.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa gaur egun euskalgintzak duen osaera eta profila. Euskararen inguruan lanean ari diren erakundeek eta pertsonak, baita korpus hutsean ari direnek edo euskararen alderdi “ludiko” eta jostagarriarekin ari direnek ere, ikuspegi soziolinguistiko nabarmena eransten diote beren jardunari gure ustez. Ikuspegia zuzena edo okerra iruditu, horrek ez digu orain hainbeste axola, euskararen inguruan egiten den orok atzean euskararen egoeraren inguruko gogoeta bat izan ohi du. Eta ez du nahitaez kontzientea eta dagokion txostenean jasotakoa izan behar. Kontziente edo inkontziente, parametro eta termino soziolinguistikoetan itzuli eta hala irakur litekeen gogoeta eginda daukate euskaldun askok, une jakin askotan haien jardunaren bulkada bihurtzen dena, eta agian haien jardun gehiena gidatzen duena. Hasieran esan bezala, Euskal Herrian metro karratuko inon baino filologo gehiago dagoela esan izan da, baina, beharbada, filologo adina soziolinguista daukagu.

## 2.5 Epeletan nahiago

Arestian esan dugunaren arabera, hizkuntzari barrutik begiratzeko modu hori da, gure sailkapeneko hiru ikuspegien artean, bazterrekoena. Arrazoa zein izan litekeen aipatu dugu, eta beste arrazoiren bat ere ekar genezake hona: biolinguistikaren ohiko ikerketa-ildoek sortzen dituzten testuak eta egiten dituzten gogoetak, sarritan, oso espekulatiboak eta hotzak iruditu dakizkioke hainbati.

Hotzak iruditu dakizkiguke, hain zuzen ere, oso formalak, abstraktuak eta teknikoak direlako askotan. Aztergaiarekiko hurbilpen biologikoan eta naturalean, une batean, gizakioi ezinbesteko eta bizigarri gertatzen zaizkigun sentimenduak, sentsazioak eta bestelako emozioak “desagertu” egiten dira narraziotik, eta kontakizunak oso ukitu hotza, teknikoa eta akademikoa hartzen du. *Geneak, kromosomak, gramatika unibertetsala* terminoek, edo egitura sintaktikoen deskribaketa formalek eta gisakoek, ez dizkiote gehiengoari eragiten, eta are gutxiago euskaltzale militanteari akaso, *erresistentzia linguistikoak, elkartasun linguistikoak, identitateak...* eta antzekoek eragiten dizkieten emozioak. Ezta bertso eder batek, hitz joko sotil batek, esamolde bitxi batek, poema edo ipuin eder batek... euskara maite duenari eragiten dion emozioa ziur asko.

Baina, hala ere, ikuspegi biologikoa ere hunkigarria izan litekeela aldarrikatu nahi dugu. *FOXP2, konputazio-sistema* edo *errekurtsibitate* hitzak erabiltzen ditugunean, unibertsoan dugun tokiaz ari gara azken batean, betiereko nondik gatoz eta nor gara galderei erantzun nahian; eta betidanik egiten ari garen galderak direnez, garbi dago kitzikagarriak eta esanguratsuak direla. Hunkitzen gaituzte galderok. Gero, egia da, erantzunaren bila hasi, eta galderak gero eta zehatzagoak eta lehorragoak dira, eta temperatura jaitsiz doa. Geldi gaitetze tarteka, ordea, erantzun zati guztiekin ikuspegi orokorra berreskuratu, galdera kitzikagarrien argitan berriz jarri, eta geure burua berotu eta emozionatu.

Hizkuntzazko gertakariak zientziak duen azalpen zehatza eta materialista ezagutzeak ez dio, bestalde, deus ere kendu beharrik gerok euskararengan, esaterako, dugun sentimenduari. Geure bizipenak, geure emozioak, burmuineko neurotransmisore jakin batzuen mendekoak izanagatik, errealak dira guretzat, eta errealitate horren azalpen zientifikoak ez dio intentsitaterik eta egiantzekotasunik kentzen emozio horiei.

Ikuspegi jakin baten nagusitasunaz ari gara, gogora dezagun, eta, bestalde, hori hala izateko gakoak pisuzkoak eta nabarmenak izan litezkeela ere aitortzen ari gara. Ulertzen dugu, alegia, hala izatea. Zertan uzten du horrek ikuspuntu biolinguistikoa deitu dugun hori? Bazter samarrekoa dela iruditzen zaigula esan dugu. Bazterrean mantendu



**Ikuspegi biologikoa ere hunkigarria izan litekeela aldarrikatu nahi dugu. FOXP2, konputazio-sistema edo errekurtsibitatea hitzak erabiltzen ditugunean, unibertsoan dugun tokiaz ari gara azken batean, betiereko nondik gatoz eta nor gara galderei erantzun nahian; eta betidanik egiten ari garen galderak direnez, garbi dago kitzikagarriak eta esanguratsuak direla.**

behar dela esan nahi al du horrek? Ez, gure ustez. Ikusmolde horren baitan lantzen diren aztergaiak duten berezko interesaz gainera —akaso jakin-min hutsaren ondoriozko interesa—, hizkuntzarekiko ikuspegi orokor bati ekarpen handia egin diezaiokeela uste dugu, eta baita hizkuntzaren -eta, zehazki, euskararen- eguneroko auzi partikular batzuei ekarpena ere.

Hurrengo atalean, hain zuzen ere, auzoaren etxetik gurera ekar genitzakeen gogoeta edo eztabaida horien zipriztin batzuk ematen saiatuko gara.

### 3. AUZOAREN ETXEAN, ESKEAN

#### I 3.1 Nor gara gu?

Hizkuntza aniztasuna gauza ederra da, soziolinguistikaren aztergaietako bat, eta hizkuntza gutxituetako kide askoren ametsa da haren iraupena. Gure planetako mapa marrazten dugunean munduan diren 6.000 hizkuntza horiek jasotzen ditugu.

Hizkuntza aniztasuna, ordea, beste plano batera eraman liteke, eta koska bat goragotik begiratu. Munduko hizkuntzen puzzlea, puzzle handiago baten pieza bat dela pentsa genezake, planeta gurekin partekatzen duten gainerako izaki bizidunen komunikazio-sistemen puzzleko beste pieza bat. Alegia, gure espeziearengan ikus dezakegun aldakortasuna eta aniztasuna ikusteaz gain, gainerako espezieekin eta animaliekin elkartzen gaituen planoan jar gaitezke, eta testuinguru horretan gure hizkuntzak zer diren ulertzen saia gintezke. Hizkuntzen aldakortasunaren aurreko egoerara eraman gaitzake ikerketak, aldakortasunaren zero kilometrora nolabait esateko, eta akaso zenbait gauza hobeki ulertzeko eta kokatzeko bidea eman diezaguke, eta, akaso, nor garen hobeki ulertzen lagunduko liguke.

Koska horretara igoz gero, eztabaida mamitsu eta argitugabeak etorriko zaizkigu berehala, eta geure burua besteekin alderatzeko joera sailhestezina agertuko zaigu. Soziolinguistikaren ohiko aztergaitik harago doa auzia, baina badu dibertsitatearekin zerikusia, eta atera genitzakeen ondorioetatik eta egin litezkeen paralelismotik atera liteke ikasbiderik.

Gainerako animaliengandik bereizten gaituzten hamaika ezaugarri aipatu izan dira han eta hemen, eta bereizgarrien zerrenda horretako izarreretako bat mintzaira dugu. Ez da auzi akademiko edo zientifiko hutsa, horren atzean animaliekiko bereizi beharra eta nahia ageri baita askotan, arrazoi filosofikoak, ideologikoak, erlijiosoak edo kulturalak bultzatuta. Auziak, jakina, inplikazio sakonak izan ditzake, eta nahi gabe eremu

labainkorretara eraman gaitzake. Esate baterako, eman dezagun, hainbatetan esan den moduan, mintzairak egiten gaituela gizaki. Hori hala baldin bada, hizkuntzaz jabetu ez daitezkeen pertsonak ez al dira pertsona? Edo nolabaiteko ezintasun linguistikoa dutenak ez al dira gainerakoak bezain pertsona? Adibide bat besterik ez da, baina sokatik tira egiten hasiz gero gerta litekeenaren erakusgarri. Ez da horregatik eztabaida eten behar, noski, baina gogoan izan behar da nora eraman gaitzakeen eta ekar litzakeen ondorioak zein diren.

Maiz esan da, gaiarekin jarraituz, giza hizkuntza, animalien komunikazio-sistemekin alderatuta, oso bestelakoa dela. Bilatu zaizkio antzekotasunak, bai, eta aurkitu zaizkio, baina baita ezberdintasun kuantitatiboak nahiz kualitatiboak ere. Jarraitutasunaren paradoxa aspaldiko urteotan indarrean egon den eta dagoen ideia eta galdera izan da, animalien lengoaien eta gurearen arteko ustezko jauzi horren eta alde kualitatibo horren adierazgarri.

“El lenguaje tiene que haber evolucionado a partir de un sistema anterior y sin embargo parece que no existe ningún sistema a partir del cual pueda haber evolucionado” (Bickerton, 1990: 24).

Paradoxa horren baitan gorpuztu da sarritan eztabaida, behar baino mingotsagoa zenbaitetan, baina badira paradoxa bera dikotomia faltsutzat jo eta nolabaiteko sintesia bilatzen ari direnak. Tecumseh Fitchen pasarte hau ekarriko dugu hona, ideia horren osagarri:

“Continuity and discontinuity: a false dichotomy

A distinction is frequently made between “continuist” models, which seek the precursors of human speech and language in the communication of other primates, and “discontinuist” models that reject this possibility (Lennenberg, 1967; Bickerton, 1990). This is an excellent example of a false dichotomy of little value in understanding language evolution.... Researchers who focus on non-shared mechanism (FLN) often tend to favor discontinuous views of their evolution (e.g. Bickerton, 1990). But even a clear break between humans and other living animals does not imply an evolutionary discontinuity. The transition from flightless Triassic reptiles to the birds of today was gradual (as revealed by the fossils of feathered dinosaurs that could not have flown (e.g. Qiang et al., 1998), but bird flight is today discontinuous with the locomotion of reptiles, simply because intermediate forms have not survived. If only a few extinct hominid species had survived longer, we might today have a revealing series of intermediate protolanguages on hand. Present-day discontinuity not imply evolutionary discontinuity. (Fitch, 2010: 175).

---

**Baliteke gure  
lengoiak eta  
animalienak,  
ezberdinak  
izanda ere,  
osagai asko —  
edo guztiak—  
partekatzea, eta  
soilik osagai  
horien  
konbinazio eta  
konfigurazio  
partikularra  
izatea benetan  
bereizi bihurtu  
dituena.**

Baina ezberdintasun kualitatibo hori aitortuta ere, eta gauzak ez direnez normalean hutsetik sortzen, gizakion lengoiak gainerako animaliekin eta espezieekin izan litzakeen loturak bilatzeko lanak ez du etenik izan, asetzeko moduko erantzun baten bila beti, eta Darwinek sortutako markoaren barruan balizko hainbat azalpen eman da. Zailtasunak zailtasun, eta aldeak alde, gainerakoekin lotzen gaituen zerbait, zer edo zer, egon egon behar dela ageriko edo ezkutuko ideia izan dela iruditzen zaigu, beste alderdi askotan zeharo ezberdinak ziren proposamenek partekatzen zuten ideia. Baliteke gure lengoiak eta animalienak, ezberdinak izanda ere, osagai asko —edo guztiak— partekatzea, eta soilik osagai horien konbinazio eta konfigurazio partikularra izatea benetan bereizi bihurtu dituen.

Eta, nolana ere, giza lengoia benetan oso eskusiboa eta oso bestelakoa izanen balitz ere, eta, ondorioz, horrek gu ere itxuraz oso “bestelako” bihurtuko bagintu ere, ez ginateke, horregatik, elementu edo produktu eskusiboren bat duen naturako izaki bakarra. Elefantearen tronpa, ziur asko, nahikoa gauza bitxia da, eta are bitxiagoak ere izanen dira. Gure begietara, jakina, eta mundua eta errealtatea hautematen dugun moduan hautematen dugunez, mintzaira gauza aparta da eta aparteko bihurtzen gaitu. Baina eboluzioaren begiradapean hain berezi al gara? Mintzairak, konparaziora, gure biziraupena bermatuko al du? Bakterioak baino eraginkorrago egin al gaitu? Edo, bestela planteatuta, nola ikusiko gaitu bakterio batek izaki mintzairadunak? Bestelakoekiko oso ezberdin?

Eta “berezitasunaren” xarma kamusten jarraituz gero, gogoan izan beharko dugu giza lengoiaren oinarri biologiko eta fisiologikoak —mintzairaren propietate abstraktuak edozein direla ere— gure gainerako organo, ezaugarri edo dena direlakoak bezala, osagai naturalez osatuta daudela, eta naturan bilatu behar dugula horien azalpena. Berezia da mintzaira, akaso, baina ez agian gu beste espezie guztietatik aparte jartzeko bezain berezia. Posizio berezi batera eraman gaitu agian, eta planetako gaurko panoraman elefantearen tronpa baino erabakigarriagoa izan dela aitortu beharko da, baina ez gaitu izaki bizidun orekin batera osatzen dugun sailkapenetik ateratzen.

Zenbat eta gehiago eta hobeki ezagutu giza lengoiak noraino hurbiltzen eta urruntzen gaituen gainerako animaliekiko, eta baita gainerako *Homoekiko* ere, orduan eta hobeki jakinen dugu “nor garen”. Ez euskaldunak zehazki, baina bai gizakiok oro, gure espeziea alegia, eta gu euskaldunok tartean.

Esan berri dugun horrek guztiak ez gaitu, itxuraz, soziolinguistikaren ohiko kezka-iturrietara eta ohiko eztabaidetara asko hurbiltzen.

Izan lezake, nolana ere, gutxienez irakurketa interesgarri bat: gure hizkuntza-aniztasuna beste aniztasun zabalago baten parte dela jakiteak, errealitatea hobeki ezagutzeaz gainera, ikuspegi etiko indartsuago bat, argudioz eta edukiz osatuagoa, ekar lezake, ulertzen baldin badugu aniztasunaren izaera unibertsala dela, aberasgarria, eta ebolutiboki logikoa eta agian saihestezina.

Ez dugu ezkutatuko, ordea, ikuspegi biologiko horrek mintzairaren —eta mintzairaren ondorio edo isla diren hizkuntza naturalen— inguruko jarrera jakin batzuk indartu litzakeela. Alegia, hizkuntza dibertsitatearen balioa gutxietsi eta haren izaera erlatiboa hanpatzeko tentazioa handia izan liteke mintzairari gure espeziearen ezaugarri huts gisa begiratzen dionarentzat, edo arreta soilik hizkuntza guztien batasunean jartzen duenarentzat. Eta jarrera horrek, egia da, soziolinguistikaren alorrean eta bereziki aniztasunaren defentsan ari denaren intuizioen, bizipenen eta sentimenduen aurka jo lezake.

Errealitate baten konstatazioak, ordea, ez gaitu nahitaez gure zenbait balio zalantzan jartzera eraman behar. Txinpantzea hurbileko senide dugula badakigu, eta badakigu higuinagarria edo beldurgarria iruditzen zaigun zomorro edo piztia ere, urruti samarrekoa izan arren, hura ere senide dugula. Izaki bizidun orok jatorri bera duela pentsatzeak ez du auzitan jartzen bioaniztasunaz dugun ikuspegi positiboa eta horri eutsi nahia. Eta, are gehiago, bioaniztasunari eusteko ikuspegi etikoa, zientifikoa edo ideologikoa hizkuntzen alorrera ere ekarri dugu, eta hortxe dugu hizkuntza ekologia.

### **3.2 Euskararen soinekoa**

Nago euskaldunok badugula gure hizkuntzaz nolabaiteko ikuspegi edo pertzepzio bat: gerok eraikia da, geure produktua da, geuk sortua eta mendeetan barna eraikia. Euskararekiko atxikimenduak, esanen nuke, baduke horrekin zerikusia. Baina nork egin du euskara? Noiz? Nola? Zein da gure hizkuntzari euskaldunok egin diogun ekarpena? Zein da gure zatia?

Galdera horiei ezin diegu erantzun, bistan denez, baina nolabaiteko hurbilpena egin genezake biolinguistikan ohikoak diren galdera edo gogoeta batzuk baliatuta edo aitzakia hartuta. Bere buruaz eta bere identitateaz kontziente den eta jakin-mina duen hizkuntza komunitate batentzat auzi interesgarria izan liteke. Azken batean, hiztun-talde edo hizkuntza komunitate batek bere hizkuntzarekin duen erlazioaz ari gara, ez baita kontua ahuntzaren gauerdiko eztula.

Imajina dezagun 600 pisuko eraikin bat, eta pisu bakoitzeko 10 etxebizitza. 6.000 etxebizitza guztira. Guztiek ere azalera bera dute, eta

---

**Nago euskaldunok badugula gure hizkuntzaz nolabaiteko ikuspegi edo pertzepzio bat: gerok eraikia da, geure produktua da, geuk sortua eta mendeetan barna eraikia. Euskararekiko atxikimenduak, esanen nuke, baduke horrekin zerikusia. Baina nork egin du euskara? Noiz? Nola? Zein da gure hizkuntzari euskaldunok egin diogun ekarpena?**

gelen banaketa ere berdina da denetan. Etxebizitza bakoitzean sartzerakoan, ordea, sentsazioak oso ezberdinak dira. Izan ere, ezberdinak dira pareten koloreak, dekorazioa, altzariak, barruko argiak eta itzalak, usaina, musika, tenperatura, giroa... Etxebizitzen egitura eta diseinua berdina izanagatik, bakoitzak sortzen dizkizun sentsazioak erabat ezberdinak dira.

Munduko hizkuntzak 6.000 inguru dira, kalkulu batzuen arabera. Ontzat eman dezagun. 600 pisuko gure eraikina munduko hizkuntzen irudi bat izan liteke. Guztiek ere egitura berdina dute, baina guri sortzen dizkiguten sentsazioak erabat ezberdinak dira. Hizkuntzen koloreak, musika eta usainak ere, etxebizitzaren bezalaxe, ezberdinak baitira, eta hala sentitzen baititugu. Altzariak eta dekorazioa dauden tokian, jarri hiztegia, soinuak edo morfologia, esaterako, eta efektu bera izanen duzu: oinarritzko batasun baten gainean, gure pertzepzioarentzat sekulako aniztasuna.

Ausartuko gara esatera hizkuntzen nolabaiteko batasunaren ideia nahikoa onartuta dagoela gaur egun. Jatorritzko batasun horrek emanen lioke hizkuntza guztiei nolabaiteko antzeko "airea" edo jitea. Beste kontu bat da komunean duten hori zer den eta noraino iristen den: azalera eta gelen banaketa hutsa den, edota komuna eta sukaldea ere jantzita dauden, edota korridoreko zeramika eta geletako parketa ere hasieratik jarrita zeuden...

Bestelako irudi bat ere proposa liteke, jakina: lur-eremu jakin batean, hainbat etxebizitza bakartu edo independente (6.000, esan dugunez), bakoitza bere azalera, egitura, banaketa, dekorazio, kolore... propioarekin. Etxebizitzen arteko antzekotasunak, bestalde, eraikitzeko material bera erabili izanari zor zaio, edota, agian, margotzeko elkarri pintura utzi izanari, edota denboran zehar ereduak eta modak zabaldu izanari...

Guri lehendabiziko irudia egokiagoa iruditzen zaigu, eta uste dugu hobeki azaltzen duela hizkuntzen batasunaren/aldakortasunaren arteko erlazioa. Eta oinarritzko batasunak ez dio panoramari edertasunik batera kentzen. Gizakiok ere, azken batean, elementu batzuen konbinaketa gara, % 63 hidrogeno, % 25 oxigeno, % 9 nitrogeno eta % 4 karbono. Baina elementu horien konbinaketa eta antolaketa bereziak aniztasun harrigarri eta ederrez osatutako populazioa eman du, 7.000 milioi lagun ingurukoa gaur egun, oinarritzko batasun horretan denak ezberdin, denak berezi. Gauza bertsua esan genezake hizkuntzaz den bezainbatean.

Eta hona etorrira, geure buruari atal honetako hasierako galderak egin diezazkiokegu berriz, eta, zehazki, galde dezakegu gure etxebizitzan, euskararen etxebizitzan alegia, zein den euskaldunok egin dugun

“Iana”. Esan nahi baita, zein izan da euskararen sorreran eta garapenean euskaldunon egitekoa? Euskaratik, hizkuntza natural partikular horretatik, zein da euskaldunok sortu eta garatu dugun zatia, eta zein da espeziari bere luze-zabalean zor dioguna? Zer da guk egin duguna?

Argitu beharreko kontua izan liteke, hasteko, ea benetan hizkuntzak oro har, edo lengoaia bera, inolako eraikuntza ote den:

Chomskyrena da honako aipamena:

“¿Fue el lenguaje “construido” por nuestros antepasados? Es difícil atribuirle sentido a esta afirmación. De hecho no hay más razón para pensar en el lenguaje como construido que para considerar al sistema visual humano y sus diversas manifestaciones “construidos por nosotros”, y aunque fuera verdad que nuestro lenguaje en algún momento fuera “construido” de alguna manera todavía no explicada, eso no alteraría el hecho crucial de que para cada uno de nosotros se desarrolla como consecuencia de la forma en que estamos constituidos, cuando nos ubicamos en el ambiente externo apropiado (Chomsky, 1980: 19-21).

Pinker ere uste bertsukoa da:

“De hecho, como observa Pinker (1994), el lenguaje es tan creación humana como la postura erecta”. (Mendivil, 2003: 137).

Agian, hizkuntzen ikuspegi biolinguistiko batetik, euskaldunok “protagonismo” pixka bat galtzen dugu geure hizkuntzaren eraikuntzan. Beharbada zatirik konplexuena, eta oinarrizko eta funtsezko egitura guztia, emana etorri zaigulako, gainerako guztiei bezala. Azken batean, euskararen jatorriaren bila hasi eta bukaeraraino eta muineraino joan nahi izanez gero, seguruenik Afrikan bukatu beharko genuke.

Eta, bestalde, eta honakoa ere ikuspegi biolinguistikoari zor, gure begietara hainbatetan hain berezi eta aparteko agertzen zaigun euskara, ez litzateke hain bitxi izanen. Azken batean, munduko hizkuntza guztiak konplexutasunean berdinak direnez, egitura bera dutenez, eta espezie beraren ezaugarri edo propietate bakarraren aldaerak eta garapenak direnez, ikusmolde horretan ez dago “aparteko” hizkuntzarik, beste-engandik asko bereizten denik, ez antzinasunagatik, ez konplexutasun-mailagatik, ez bestelako deusgatik ere. Euskarak duen berezitasuna, izatekotan, faktore historikoek eman diote, kulturek, politikoen, soziologikoen... eta horien guztien abstrakzioa egiten du biolinguistikak. “Xarma” kentzen digu, alde horretatik, “historiak” eta harreman sozialek eman digutena, baina, trukean, mintzairaren sorreraren, jatorriaren eta

---

**Agian,  
hizkuntzen  
ikuspegi  
biolinguistiko  
batetik,  
euskaldunok  
“protagonismo”  
pixka bat galtzen  
dugu geure  
hizkuntzaren  
eraikuntzan.  
Beharbada  
zatirik  
konplexuena, eta  
oinarrizko eta  
funtsezko egitura  
guztia, emana  
etorri zaigulako,  
gainerako guztiei  
bezala.**

eboluzioaren misterioak duen xarma guztia ematen digu, gure hizkuntza bera espezie jakin baten, edo, are gehiago, eboluzioaren beraren emaitza harrigarri bezain txundigarri gisa kokatuz. Eta hori ere ez da gutxi.

Hori guztia ontzat emanda ere, eta euskara gure identitate kolekti-boaren osagai oso garrantzitsua dela pentsatzen dugunon kontsolagarri, ez dugu uste uka litekeenik, era edo neurri jakin batean behintzat, euskara euskaldunon eraikuntza kolektiboa izan denik. Etxeko pintura, musika, usaina, altzariak... guk jarri baldin baditugu, gure lanarekin pozik eta gustura egon gintezkeela uste dugu. Are gehiago, gure hizkuntzatik hiztunari atxikimendua eragiten diona, eta emozioak, sentazioak edo sentimenduak piztuko dizkiona, normalean behintzat, munduko hizkuntzekin partekatzen dugun oinarrizko eta funtsezko egitura antzemanekin hori baino gehiago, egitura horri guk jantzi diogun “soinekoa” da: euskararen soinekoa, alegia. Euskararen kolorea, usaina, eta musika. Chomskyk esan izan du estralurtar bat lurrera etorriko balitz hizkuntza asko ikusi beharrean hizkuntza bakarra, giza hizkuntza, ikusiko lukeela. Baliteke estralurtar horren pertzepzioa hori izatea; ez, ordea, estralurtar edo hizkuntzalari ez diren herritar gehienena, eta hori da gehienei axola zaiena. Hizkuntzen arteko batasuna objektiboki argudia badaiteke ere, eta aitortza horrek irakurketa negatiborik behar eta merezi ez duen arren, identitate linguistikoaren sortzaile den aniztasuna ere erreal da, erreal da haren pertzepzioa eta horrek dituen ondorioak, eta horiek ere ez dira gutxiestekoak.

Euskarazko hitzak, berriz ere gurera etorrira, ez zituen *H. sapiens*ak Afrikan duela 100.000 urte sortu, *H. sapiens* horietako batzuek baizik, lekukotasunik utzi ez diguten garai batzuetan, baina baita gure historia ezagunean zehar ere. Esan ote liteke hizkuntzaren eraikuntzako alderdi “kontzientea” guk jarri dugula? Eta gainerakoa, ustez garunean eta kode genetikoan jasotako egitura komun eta unibertsal hori, alderdi ez-kontzientea, naturari zor diogula? Hizkuntzazko adierazpenak, oinarrizkoenetik hasi eta gaurko ekoizpeneraino, zehazki nola sortu eta garatu ziren jakin beharko genuke akaso hori ebazteko, eta horretatik urrun gaude oraindik. Espekulazioa hain ohiko eta hain saihestezina den eztabaidan kokatuta gaudenez, nolana ere, bego galdera hori, besterik ez bada gogoeta eragiteko.

Ikuspegi biolinguistikoak ekartzen dizkigun berriak, agian, ez dira beti gure gustuko izanen. Baina egiak —egia izatekotan, jakina— maiz ozpinaren zaporea izan dezakeen arren, hobe da hura den bezalaxe ezagutzea eta onartzea. Ondoren izanen dugun diskurtsoa eta eraikuntza ideologiko eta zientifikoa, gainera, askozaz sendoagoa izanen da.

### 3.3 Aurreiritziekin borrokan

Baina hain espekulatiboak ez diren gaietan ere bila dezake probetxua ikuspegi biolinguistikoan hizkuntza-komunitate jakin batek, gureak kasu. Mintzaira zer den osoki ulertuz gero, beraren batasunean eta aniztasunean koherente, atsegin, eta asegarri, hizkuntzen arteko harremanaren erronka intelektual eta teorikoari, eta baita praktikoari ere, hobeki heldu geniezaioke ziur asko, hizkuntza gutxituen defendatzaileei sarritan leporatzen zaien ikuspegi herren, txokozale eta itxiari aiseago aurre eginez.

Eta zenbait aurreiritzi ere errazago gaindi litezke ikuspegi biolinguistikoak ematen dizkigun argudioekin. Maiz entzun behar izan dugu, eta gurean bereziki, hizkuntza zailen eta hizkuntza atzeratu edo primitiboen kontua. Gurea bezalakoak, noski, hizkuntza gutxituak alegia, sarritan hizkuntza sinpleen zakuan sartzen dira. Besteak, "handiak", sofistikatua eta konplexuak dira; gureak, "txikiak", sinpleak eta garatu gabeak. Horri berdintasunaren eta errespetuaren hiztegitik erantzun dakiok, eta hala behar du, baina argudioak beste alor batzuen ekarritik gizendu litezke, eta hango ideia batzuk baliatu. Honatx horietako batzuk, lagin gisa:

– Hizkuntza guztiak oinarrian berdintsuak dira, hizkuntzen konplexutasuna eta egitura garunaren arkitekturaren ondorioa eta isla dira, eta hizkuntza-gaitasuna gure espeziearen dotazio genetikoaren zati bat da. Hori hala balitz, nekez esan liteke hizkuntza batzuk besteak baino konplexuagoak direla. Hizkuntzalaritza formalaren arlotik (Juan Carlos Moreno Cabrera, 2000) aspaldi adierazi da aztertuak izan diren hizkuntza guztiak antzekoak direla beren konplexutasun-mailan. Jakina da zenbait arlotan hizkuntza batzuetan sistema edo egitura konplexuagoak aurkitzen ditugula besteetan baino. Namibiako Kungo hizkuntzak 24 bokal ditu, eta 95 kontsonante, konparaziora, euskarak baino dezentez gehiago (Monasterio, 2004: 72), baina badirudi hizkuntzek nolabaiteko oreka lortzen dutela, eta konplexutasun maila global hori berdintsua dela. Bistakoa litzateke, orduan, hizkuntza bat ezin dela bestea baino zailagoa izan berez, eta zailtasun horren oinarria hizkuntza ikasi nahi duen hiztunaren abiapuntuan dagoela. Beste kontu bat da konplexutasunaren muga nork jartzen duen, eta horretan hautagai ezberdinak daude: hizkuntza komunitatea bera, gizakion garuna...

– Arestitxoan aipatutako oreka horren gakoa, zenbaiten ustez, ikasgarritasuna eta erabilgarritasuna dira. Alegia, hizkuntza bat ez bada ikasgarria edo erabilgarria, nekez egingen du aurrera gainerako hizkuntzekiko lehian. Hizkuntza bat ikasteko 3-4 urte beharrean, haren



**Mintzaira zer den osoki ulertuz gero, beraren batasunean eta aniztasunean koherente, atsegin, eta asegarri, hizkuntzen arteko harremanaren erronka intelektual eta teorikoari, eta baita praktikoari ere, hobeki heldu geniezaioke ziur asko, hizkuntza gutxituen defendatzaileei sarritan leporatzen zaien ikuspegi herren, txokozale eta itxiari aiseago aurre eginez.**

zailtasuna dela-eta, 6-7 urte behar izanez gero, praktikoa izanen al litzateke? Eutsiko al lioke komunitate batek ahalegin horri, ondoan aukera errazagoak eta ekonomikoagoak izanda?

– Beste azalpen bat izan liteke garuna bera dela konplexutasun horri muga jartzen diona. Hizkuntzak ez dira konplexuagoak gure garunaren antolaketak, ezaugarriek eta egiturak ez dietelako uzten, eta izan litezkeen gramatika posible guztiak ez existitzea lagungarria da haurren hizkuntza-jabekuntzaren ikuspegitik.

– Andrea Morok (Moro, 2008: 197), burmuinak lengoaiari ezartzen dizkion mugen auzia argitzeko, konparaketa bat egiten du, hagitz interesgarria. Esaten ari gara ume baten garunak soilik gramatika molde jakin batzuk eskura ditzakeela. Zerekin konparatzen du Morok murriztapen hori? Bada, auzi hauen eztabaidan hain esker onekoa gertatzen den begiarekin. Izan ere, begiak espektro elektromagnetikoaren tarte murriztu bat besterik ezin du hauteman. Ultramoreen eta infragorriaren artekoa antzematen dugu, baina ez hortik kanporakoa. Alde batetik, gramatika aukera gehiago izatea bezalaxe, abantaila izan liteke, esaterako, infragorriak hauteman ahal izatea: ilun dagoenean odol beroko organismoak sumatuko genituzke. Baina, beste aldera, eta Morori jarraituz, infragorriak ez hautemateak ere badu bere alderdi ona: gure garunak informazio gutxiago prozesatu beharra duenez, estimuluen aurrean azkarrago erantzun dezake, eta hori ez da gutxiesteko modukoa biziraupena jokoan dagoen egoeratan. Diren frekuentzia elektromagnetiko guztiak sumatzeko gai izanen bagina akaso erotu eginen ginateke. Baita, akaso, gramatika moldeak askozaz zabalagoak balira ere.

Esan beharrik ez dago, nolana ere, ez dagoela hizkuntzen konplexutasun maila neurtzeko sistema zientifiko estandar eta zehatz adosturik, eskala ulerterraza eta aisa aplikatzen denik. Egiten diren balioespenak, beraz, alde baterakoak nahiz besterakoak izan, oraingoz subjektibo samarrak direla ere aitortu beharko da.

### 3.4 Hizkuntzaren jabekuntza

Aurrekoez gainera, aipa dezagun hizkuntzaz jabetuko diren hiztun berri bila heriosuhar dabilen komunitate batentzat bereziki interesgarria izan litekeela lehendabiziko eta bigarren hizkuntzaren jabekuntzako mekanismoak —berezkoak nahiz berezkoak ez direnak— zein diren ongi ikastea, hizkuntzara ekarri nahi ditugun hiztun horien guztien jabekuntza-prozesuak optimizatzeke eta errazteke.

Euskarak etorkizuna bermatua izanen badu, izan ere, gainditu beharreko erronketako bat beraren lurraldean bizi diren herritarrak euskalduntzea izanen da. Izanen dira, eta badira, hizkuntzaz etxean eta transmisio-bide naturalenaren, eraginkorrenaren eta merkeenaren bidez jabetzen direnak, baina izanen dira eta badira euskara bigarren —edo hirugarren— hizkuntza gisa eskuratzen dutenak. Izan haur eta eskola garaian, edo izan gaztaro nahiz helduaroan.

Hizkuntzaz jabetzeko mekanismoen eta prozesuen azterketa eta horren ondorioen ustiaketa ez da gauza berria, eta aspaldi ari da jendea horren inguruan lanean. Dena egiteko eta deskubritzeko dagoela esatea inozokeria litzateke. Baina inozokeria izanen litzateke, era berean, hizkuntzaren jabetzaz jakin beharreko guztia badakigula pentsatzea. Hizkuntzak ikasteko mekanismoen inguruko ezagutza hobek, gure ustez, euskara berreskuratzeko lanean makina bat aldiz estrategikotzat eta lehentasunezkoztat jo ditugun esparrutan aukerak optimizatzea ekar lezake: helduen euskalduntzean, esate baterako, edo murgiltze ereduetan...

Esan beharrik ez dago hizkuntzaren irakaskuntzan eta ikaste-prozesuan ikasten ari denaren inguru soziolinguistikoak, edo motibazio instrumentalak, edo jarrera politiko-ideologikoak, edo harreman-sareak, edo gizartearen antolaketak, edo izaera sozialeko beste hainbat faktorek eragin handia dutela. Horren jakitun dira euskara erakustea egiteko dutenak, zalantzarik gabe.

Baina, era berean, hizkuntzaz jabetzea ariketa indibiduala ere bada, norberaren gaitasun kognitiboekin erlazio estua duena, eta gure burmuinaren konfigurazio partikularrarekin ezinbestean lotuta egon behar duena. Gizakiok euskara ikas dezakegu, baina antilope batek edo sagarondo batek ez, izaki bizidunak izanagatik. Gizakiok horretarako gai egiten gaituen gailua hobeki ezagutzeak, akaso, lan, izerdi eta ahalegin handia eskatzen duen hizkuntza ikasteko jarduera hori hobetzen edo errazago egiten lagunduko liguke.

Horrek ez du esan nahi hizkuntza minorizatuak biziberritzeko lanean ari direnek esku artean duten guztia utzi eta neurolinguistikaren, psikolinguistikaren edo biolinguistikaren putzura jauzi egin behar dutenik. Nahikoa izan liteke, agian, gutxienez auzoak zertan ari diren zeharretik begiratzea, edo galdetzea, irabaziren bat ateratzeko aukera pasatzen utzi gabe.

### **3.5 Hizkuntza eta ni**

Azkenik, eta biolinguistikak hizkuntza-komunitateari egin liezazkiokeen ekarpenak segur aski askoz gehiago izan litezkeen arren, gure zerren-

**Esan beharrik ez dago, nolana ere, ez dagoela hizkuntzen konplexutasun maila neurtzeko sistema zientifiko estandar eta zehatz adosturik, eskala ulerterraza eta aisa aplikatzen denik. Egiten diren balioespenak, beraz, alde baterakoak nahiz besterakoak izan, oraingoz subjektibo samarrak direla ere aitortu beharko da.**

datxoa bukatzeko norbanakoarengan jarriko dugu arreta. Ikuspegi biolinguistikoak espezie gisa geure burua kokatzen lagundu diezagukeela esan dugu, baita hizkuntza-komunitate gisa ere, geure hizkuntzaren eraikuntzan izan dugun egitekoa berrikusiz esate baterako. Norbanako gisa hizkuntzarekin dugun harremana argitzen ere lagun diezaguke. Hizkuntza hiztunari hertsiki lotutako errealitatea dela bistakoa da. Lotura horren errealitatea eta propietateak zein diren zehaztea nekeza den arren, nahikoa da introspektzio edo barrura begirako ariketatxo bat lotura horretaz ohartzeko. Ez nuke esanen harreman horren nolakotasunaren gaineko gogoeta horrek eta biolinguistikak eman liezazkigukeen gakoek berehalako ondoriorik izanen luketenik hiztunarengan, eta ez da erraza ikusten ondorio praktikorik ekarriko ligukeenik. Baina, gutxienez, geure buruaren ezagutzak eta gure ezaugarrien kontzientzia sakonago batek oro har emanen lizkiguketen onurak ekar litzake.

Egia da, nolana ere, ez dugula beti eta ez dugula denok gauza guztien errealitatea —hala esan badaiteke— ezagutu edo jakin nahi izaten. Batez ere, errealitate horren deskribaketa termino oso teknikoetan, digitaletan, fisiko-kimikoetan, matematikoetan... eta oro har termino “hotzetan” ematen zaigunean, guretzat bizigarri eta batzuetan “misteriotsu” eta txundigarri diren ezaugarri, sentimendu, gaitasun, propietate edo bestelakoei erromantizismoa kenduz.

Baina ez dugu nahitaez horrela ulertu beharrik:

“De hecho, muchas personas muestran cierta comprensión cuando se habla de sentimientos como el amor en términos de endorfinas segregadas por el cerebro, etc. En realidad no hay una negación de los sentimientos que tenemos: darles una incompleta y primaria explicación fisiológica (que es lo que hoy se hace) no puede implicar que debemos dejar de sentir lo que sentimos o de tener las convicciones éticas que tenemos. Pensar que la alegría o la tristeza son estados fisiológicos como el cansancio o la fiebre no nos hará confundir un tipo de estados con otros ni percibirlos de forma distinta a como se hacía hace miles de años. Saber que estamos hechos de la misma materia que las estrellas no ha impedido que respetemos la vida humana como lo más valioso, al menos en teoría. (Mendivil, 2003: 229).

Zer garen ulertu eta jakin nahi duenak, horrenbestez, eta hizkuntza gertaera soziala izateaz gainera errealitate indibiduala, psikologikoa eta besterenezina ere badela onartzen duenak, norberak hizkuntzarekin duen harremana argitzeko bide emankorra eta interesgarria aurki lezake biolinguistikak jorratzen dituen ikerketa-ildoetan.

#### 4. IKUSPEGIEN ARTEKO HARREMANEZ

Lan honetan proposatu ditugun hiru ikuspegien arteko harremanak ez dira beti gozoak izaten, eta ez da arraroa hizkuntza aztertzeke eta lantzeko ikuspegi batean kokatuta dagoenak gainerakoekiko ezikusiarena egitea, edota, are okerrago, haien arteko ezinikusiak ere antzematea. Badirudi, zenbaitetan, norberaren posizionamendua indartzeko bestea ahuldu beharra dagoela.

Ikuspegien arteko talka horren adibide ugari aurki genezake literaturan, eta baita ikuspegi beraren baitako auziak ere. Ikusarazi nahi dugun gatazka giro horren erakusgarri adibideren bat ekarriko dugu, zipriztin modura.

Steven Pinker bera, adibidez, *El instinto del lenguaje* liburuan, hizkuntza adituen eta etimologia gustuko dutenen aurka gogor mintzo da (Pinker, 1994: 420). Arrazoi puska bat izanen du, akaso, baina beharbada ozpin gehiegitxo dago bere idatzian. Lan horretako beste pasarte batean, Chomskyz ari dela, “es un teórico de papel y lapiz” bezalakoak esaten ditu. Pinkerrek Chomskysi leporatzen dio, besteak beste, ez duela esperimenterik egiten, psikolinguistek egiten dituzten moduan. Argudioez, arrazoez eta abstrakzio formalez gain, esperimentuak eta “frogak” ere behar omen dira.

Horren aurrean argudiatu ohi da arrazoiak berak, zenbaitetan, zer bilatu behar dugun erakuts diezagukeela. Hizkuntzaren oinarri biologikoak bilatzeko, esaterako, agian beharrezkoa da alde aurretik abstrakzio formal bat edo gramatikaren deskribaketa bat egitea. Chomskyk berak, aipatu dugun Pinkerren kritika bera baino lehenago, emana zuen antzeko argudioren bat:

“Ahora bien, la física no podría haber desarrollado la estructura del átomo y de la molécula si la química del siglo diecinueve no le hubiera proporcionado las ideas abstractas. Fueron estas las que les dijeron a los físicos lo que tenían que buscar. Tenían que buscar cosas que tuvieran complicadísimas propiedades descritas en las teorías abstractas. Y las ciencias del cerebro están en la misma situación hoy en día. Tienen que preguntar al lingüista o al psicólogo cuáles son las estructuras abstractas que poseen los seres humanos y cuya base física tenemos que buscar” (Chomsky, 1998: 151).

Alegia, ez da gauza bera hizkuntzaren propietate abstraktuez aritzea eta garuneko zirkuituez aritzea, baina agian bigarrenera iristeko lehen-dabizikotik pasa beharra zegoen.

---

**Ikuspegi  
biolinguistikoak  
espezie gisa  
geure burua  
kokatzen  
lagundu  
diezagukeela  
esan dugu, baita  
hizkuntza-  
komunitate gisa  
ere, geure  
hizkuntzaren  
eraikuntzan izan  
dugun egitekoa  
berrikusiz esate  
baterako.**

Ikuspegiaren arteko eta barruko gatazka horren beste aipamen bat Derek Bickertonek eman digu. Honela dio:

“Existen dos diferencias muy singulares entre los formalistas y los antiformalistas. La primera está en lo que creen. Ningún formalista cree que una aproximación puramente formal sea la única forma de estudiar el lenguaje. Cualquier formalista estaría de acuerdo en que hay muchos aspectos del lenguaje —significado, uso, interacción con otros campos sociales y psicológicos— que son merecedores de estudio. Si se pregunta a los formalistas por qué insisten en estudiar la estructura formal aislándola de todos los demás factores, probablemente dirán que los avances significativos en el conocimiento han estado siempre centrados en aspectos particulares de las cosas, aislándolos de otros aspectos. No ven ninguna razón por la que el estudio de nuestra especie invierta este prudente procedimiento.

Pero si se pregunta a los antiformalistas por qué ignoran la estructura formal del lenguaje, la respuesta será a veces mucho menos tolerante. Pueden decir que es absurdo estudiar los aspectos formales del lenguaje sin relacionarlos con su modo de funcionamiento en la sociedad. Muy posiblemente continuarán diciendo que puesto que esos aspectos no son más que mecanismos poco interesantes, o adornos superficiales, o incluso artificios del método de investigación, pueden relegarse a una posición inferior, si no rechazarse por completo”. (Bickerton, 1990: 25).

Jakina da hizkuntzen ageriko aldakortasunak batetik eta hizkuntza guztiei atxiki zaien sakoneko batasunak bestetik eztabaida ugari eta jarrera kontrajarriak eragin dituztela. Mendibil Girók Mark Bakerrri hartutako adibide polit batekin azaltzen digu auzia:

“En efecto, la tensión entre la evidente diversidad de las lenguas y su unicidad básica como atributo común a la especie ha sido uno de los grandes problemas de la lingüística universal. Mark Baker (2001) ha reflejado vívidamente esa tensión a través de lo que denomina la paradoja de los Code talkers. Se refiere con esa expresión al pequeño grupo de indios navajos que el ejército estadounidense empleó en la batalla del pacífico para codificar sus mensajes. Según relata Baker, en una fase del enfrentamiento contra los japoneses en 1943 en torno al archipiélago de Bismark, el alto mando norteamericano detectó que diversos fracasos militares estaban relacionados con que los japoneses descifraban los mensajes de sus tropas, anticipándose a sus movimientos. Lo relevante ahora es que el uso del navajo como código de cifrado para las ordenes resistió todos los intentos de los criptógrafos japoneses, y,

según Baker, contribuyó al desenlace final favorable (a los norteamericanos) en dicho episodio bélico. La paradoja reside en que, por una parte, el navajo tenía que ser una lengua tan extremadamente distinta del inglés (y del japonés) como para que los experimentados espías japoneses no pudieran descifrarlo (a diferencia de lo que hicieron con otros códigos artificiales), mientras que, por otra parte, el navajo tenía que ser extremadamente parecido al inglés, pues en caso contrario los intérpretes navajos no podrían haber transmitido con precisión las órdenes proporcionadas en inglés por sus mandos. (Mendivil, 2009).

Gure ustez, batetik eta bestetik egiten diren proposamenak eta ideiak bere testuinguruan egoki kokatuz gero, ez dago funtsezko arazorik ikuspegi guztiak onartu eta denak baliozkoak izan litezkeela aitortzeko. Argudio eta arrazoi xeheetan ez dago ados egon beharrik, jakina, baina aitortu genezake aztergai berbera abiapuntu, interesgune, ildo, metodo eta helburu ezberdinekin azter daitekeela. Eta ikuspegiak integratzea ere egin litekeen ariketa da. Are gehiago, egin beharko litzatekeen ariketa da.

Mintzairak errealitate fisiko bat duela, errealitate mental edo psikologiko bat dela, eta garunarekin oso lotura estua duela nekez uka liteke gaur egun. Eta lengoia gizarte-testuingurutik kanpo ikertzeak, beraz, zentzu osoa izan lezake, eta lanerako aukera bat izan liteke.

Baina, era berean, Interneten dagoen soziolinguistika hiztegiko euskarazko 330 kontzeptuak hutsalak direnik ezinen dugu esan. Euskaraz gozatu eta sufritzen dugun orok ongi aski dakigu hizkuntzaren erabilera sozialaren berri, eta hizkuntzaren izaera kolektiboaren ondorioak ederki asko dastatuta dauzkagu, onerako zein txarrerako. Ikusi nahi duenak aisa ikusiko du hizkuntzaren alderdi mental eta indibidualaren ondoan alderdi kolektibo eta soziala ere badagoela. Eta baita alderantziz ere.

Beraz, nahikoa logikoa edo naturala dirudi norberak lehentasunez-kotzat hartu duen ikuspegiari inolaz ere uko egin gabe, gainerakoen beharra, edo garrantzia, edo existentzia besterik ez bada, aitortzea. Biolinguistikako ildoan erabat murgilduta dagoen Guillermo Lorenzok, esate baterako, honela dio:

“El estudio, pero también la preservación, de la diversidad lingüística se impone así como un empeño clave en este primer nivel de la investigación biolingüística. Tal vez nadie haya insistido tanto en ello como Ken Hale, y es buena idea recordarlo citando por extenso sus palabras, en las que nos habla de la necesidad de promover una sensibilidad ecolingüística como expresión particular de la sensibilidad ecológica que resulta en general necesaria de cara a la preservación de la biodiversidad del planeta”. (Lorenzo, 2006: 19).

---

**Mintzairak  
errealitate fisiko  
bat duela,  
errealitate  
mental edo  
psikologiko bat  
dela, eta  
garunarekin oso  
lotura estua  
duela nekez uka  
liteke gaur egun.  
Eta lengoiaia  
gizarte-  
testuingurutik  
kanpo ikertzeak,  
beraz, zentzu  
osoa izan lezake,  
eta lanerako  
aukera bat izan  
liteke.**

Aipamen horren ondoren, Lorenzok Ken Haleren hitzak jartzen ditu. Egia esateko, hitz horietatik ez dugu guk hain ondorio garbia ateratzen, eta hizkuntza aniztasunarekiko jarrerari nolabaiteko kortesia kutsua hartzen diogu, baina esanguratsua iruditzen zaigu Guillermo Lorenzo bezalako egile batek, biolinguistikaren ildoaren ordezkari argia eta nahikoa planteamendu gogorak dituen horrek, ekolinguistika bul-tzatu beharra aitortzea.

Eta gauza bera esan genezake Mendivil Giro ikertzailearen hitz hauek kontuan hartuz gero:

“En el caso de las lenguas humanas, es evidente que por mucho que insistamos en los universales, las convergencias y las jerarquías, o en la propia GU, no podemos negar ni periclitar la relevancia de cada una de las lenguas y de su valor intrínseco como objeto cultural e histórico. Si retomamos el símil lengua-especies, es evidente que por mucho que aceptemos la teoría de la evolución no nos sentimos tentados de considerar irrelevante la extinción de una especie concreta, por mucho que su origen sea casual y contingente. Del mismo modo, aunque rechacemos el relativismo lingüístico respecto de sus implicaciones sobre la estructura de la mente humana, no tenemos por qué cejar en el empeño de intentar conservar los miles de lenguas humanas que en la actualidad están en peligro de extinción. Incluso aunque no admitamos que una lengua es una visión del mundo peculiar (que es un típico argumento a favor de las políticas de preservación de lenguas minoritarias) no deja de ser evidente que las lenguas son un patrimonio cultural de primer orden y, sobre todo, que los derechos de sus hablantes deben ser respetados. Y pocos derechos son tan íntimos como el de hablar tu propia lengua” (Mendivil, 2003: 229).

Biolinguistikaren lubakitik atera gabe, gai baten inguruko ikuspegi ezberdinek ez dutela nahitaez txuri edo beltz izan behar erakusten duen zenbait pasarte ekarriko ditugu. Jose Luis Mendivil Girorenak dira, eta ikuspegi ezberdinek ez dutela elkar ukatu beharrik erakusten digute, hizkuntzen aniztasuna/batasuna eta hizkuntzalaritza/soziolinguistika ustezko eztabaidak edo dikotomiak ardatz hartuta:

“Mas concretamente la pregunta que pretendo ayudar a responder es la de qué nos dice el propio hecho de la diversidad de las lenguas sobre la naturaleza de la facultad del lenguaje. Es evidente que el alcance de la pregunta depende de qué entendamos por *diversidad de las lenguas* y de qué entendamos por *facultad del lenguaje*. De hecho, que se pueda considerar una pregunta interesante, e incluso lícita, depende de la asunción de que existe diversidad entre

las lenguas y de que existe la facultad del lenguaje. Aunque pueda resultar sorprendente, no siempre coexisten esas dos asunciones en todas las aproximaciones teóricas al problema, luego para algunos puntos de vista la pregunta simplemente no es relevante. En principio caben tres respuestas posibles:

1.- La diversidad de las lenguas es tan profunda e irrestricta que más que decirnos algo sobre la facultad del lenguaje, en realidad demuestra que no existe o que es demasiado general para considerarla como tal.

2.- La diversidad de las lenguas es superficial. Todas las lenguas son variaciones del mismo tema y, por tanto, el modo en que se diferencian no nos dice gran cosa sobre la facultad del lenguaje.

3.- La diversidad de las lenguas es profunda y significativa y por ello es una fuente de información primordial para determinar la estructura y naturaleza de la facultad del lenguaje.

A primera vista las dos primeras respuestas parecen caricaturas. Sin embargo no lo son en absoluto. De hecho, la mayoría de aproximaciones al problema que se han hecho en la historia de la lingüística como ciencia se inscriben casi sin remilgos en cualquiera de ellas. Si nos ceñimos a la lingüística reciente (de los últimos cincuenta años) se podría afirmar que la respuesta de (1) caracteriza a buena parte del funcionalismo lingüístico y que la respuesta de (2) caracteriza a buena parte del formalismo o generativismo.

... lo que a su vez implica la asunción de dos hechos que para buena parte de las corrientes lingüísticas actuales deberían ser incompatibles: (i) que la diversidad entre lenguas es un hecho real, profundo y sustantivo y (ii) que los seres humanos, a diferencia de otros organismos naturales y dispositivos artificiales, estamos dotados de una facultad específica que nos permite adquirir, conocer y usar la lengua (o lenguas) del entorno.

A pesar de que ambos hechos están adornados con un aura problemática, en buena medida son evidentes. La prueba elemental de que la diversidad lingüística es un hecho real y no sólo aparente está en el hecho incontrovertido de que hablar una lengua no garantiza hablar y entender otras lenguas. La prueba básica de que los seres humanos estamos dotados de una facultad del lenguaje está en el hecho de que normalmente cualquier ser humano expuesto a una (o más de una) lengua natural desarrolla la capacidad de usarla (o usarlas), mientras que eso no sucede nunca con otro dispositivo, sea natural o artificial. El problema no es pues, si existe diversidad lingüística, sino en todo caso cuál es su rango de amplitud y dispersión. Del mismo modo, no es controvertido afirmar la existencia de la facultad del lenguaje, sino en todo caso su estructura, su origen o su especificidad para el lenguaje (Mendivil, 2009: 15)

“En general es posible defender que el único estudio interesante del lenguaje es el que se desarrolla considerando el lenguaje como un sistema de



---

**Ikuspegi  
arteko  
urruntasunaz/hur  
biltasunaz ari  
gara. Posible al  
da hizkuntzaren  
barruko  
muinarengatik  
zirrara sentitzea,  
eta hotz gelditzea  
hizkuntzak berak  
duen etorkizun  
ilunagatik? Edo  
hitzak liluratzea,  
eta hizkuntzaren  
zoritxarrak ez  
hunkitzea?**

comunicación social y, por tanto, sólo estudiable desde ese contexto. Ésta es de hecho una práctica común y absolutamente respetable, aunque se pueda estar en desacuerdo y objetar que dicho estudio es necesario pero insuficiente. Sin embargo, en modo alguno se puede aducir, sin más argumentación, que indefectiblemente la “objetividad” y el carácter empírico en nuestra disciplina se obtienen únicamente en el estudio de la dimensión social del lenguaje o con una concepción del lenguaje como una institución social.

Es evidente que este tipo de estudio es empírico (al menos el sociolingüístico), pero en modo alguno puede este hecho ser un argumento contra el carácter empírico de los datos de introspección, ni tiene la exclusividad de “carácter empírico”. Sencillamente son planos distintos.” (Mendivil, 2003: 143)

“El reproche frecuente en este tipo de trabajos a la idealización chomskyana del hablante-oyente-ideal (ese que no se equivoca, ni se despista, etc., de Chomsky, 1965), reproche en el que se asienta buena parte de la argumentación contra el carácter empírico de la gramática generativa, se podría también extender a la idealización saussureana de la *langue*. En todos los casos es obvio que son reproches injustificados. En ciencia siempre se aíslan factores que en un momento determinado se puedan considerar irrelevantes o accidentales (como el rozamiento, la gravedad, la luz solar, la altitud, la porosidad, etc.) con la pretensión de mantener artificialmente ciertos factores constantes y poder analizar las variables en las que se está interesado. (Mendivil, 2003: 132)

“Por ello incluso dentro del programa generativista (a pesar de lo que suele afirmarse) debe ser evidente que las lenguas humanas merecen un estudio en sí mismas y en sus propios términos como objetos históricos y peculiares” (Mendivil, 2003: 180)

“Los humanos no hablamos *el lenguaje*; los humanos hablamos una lengua natural o no hablamos. (Mendivil, 2003: 180)

“Sin embargo, el lenguaje *sólo nos es accesible a través de las lenguas*. Al margen del indudable interés que merecen por sí mismas como objetos culturales irrepetibles, las lenguas (incluidos los “lenguajes de signos” que emplean los sordos) son prácticamente la única puerta de acceso al lenguaje”. (Mendivil. 2003: 182).

Chomskyk berak ere, hiztunaren idealizazioa dela-eta hainbeste kritika jaso duen horrek berak, aitortu izan du hizkuntzen izaera soziala eta horren gaineko ikerketa:

“Al hacer explícitas éstas idealizaciones y realizar nuestras investigaciones de acuerdo con ellas, en modo alguno menoscabamos el estudio de la lengua en cuanto producto social”. (Chomsky, 1986: 32.).

Ikuspegiaren arteko urruntasunaz/hurbiltasunaz ari gara. Posible al da hizkuntzaren barruko muinarengatik zirrara sentitzea, eta hotz gelditzea hizkuntzak berak duen etorkizun ilunagatik? Edo hitzak liluratzeara, eta hizkuntzaren zoritxarrak ez hunkitzea? Akaso bai, eta ez dirudi kritikagarria denik. Harritu, kezkatu, edo etsitu egin gaitzake agian, baina ez du ematen hori kritikatzeko modukoa denik. Izan ere, nor eta zerekin kezkatzen den eta hunkitzen den, nekez sar daiteke era justifikatu batean kritikagarriaren parametroetan.

Interesgarria da, diziplinak eta sentimenduak nahasten ari garen honetan, Marleen Haboud hizkuntzalari ekuadortarrak ARGIA aldizkariari esandakoa:

“Galdera: Arretagune asko izan dituzu: hizkuntzalaritzan doktore, Andeetako antropologian aditu, soziolinguistikan eta etnolinguistikan aritu zara. Zein seme-alaba maite dituzu gehien?”

Marleen: Zaila da esaten. Nik uste dut seme-alabak bat baino gehiago dituzunean denak maite dituzula, baina arrazoi ezberdinengatik. Dena lotuta dago. Esate baterako, soziolinguistika arloan ari zarela ezin zara identitatezein kultura-kontuez ahaztu. Denak maite dituzu. Une jakin batean batengana hurbiltzen zara gehiago, seme-alabekin bezala. Batzuetan buru-belarri aritu izan naiz ukipen egoeran dauden hizkuntzen analisi morfosintaktikoak egiten. Kanpotik begiratuta, irudi luke ikerketa hotza dela, soilik linguistikoa, baina benetan oinarrian hizkuntzen negoziazio-moduak ikertzen zabilta, hiztunen arteko elkarreaginak. Itxuraz gordina den bidea hartuta ere, ukipen egoeren errealitatera iristen zara, hizkuntzen, kulturen eta identitateen arteko harremanetara. Eta baita alderantziz ere, orain komunitate indigenetako pertsonekin ikerlan soziolinguistikoa egiten dihardudala, pertsonak elkarriketatzen ari naizela, hizkuntza forma txundigarriak aurkitzen dituzu. Dena lotuta dago.” (Haboud, 2010).

Ikuspegiaren sintesia jarrera eta begirune kontu hutsa da? Edo, akaso, praktikoa eta lagungarria ere izan liteke? Agian, akaso, beharbada, ikuspegi soziolinguistikoak, esaterako, “biologia” pixka bat txerta liezaioke bere analisiari. Noraino erabakitzen du kulturak, eta noraino naturak, une jakin batean euskaraz edo erdaraz egingen dugun? Hizkuntzaren normalizaziotik normalean kulturari begiratu diogu, gizarteari. Eta biologiari ere begiratu bagenio? Ez gara orain “hizkuntza-leialtasunaren”, “hizkuntza-kalitatearen” edo “euskaltzaletasunaren” genea bilatzen hasiko, baina gerta liteke hizkuntza-portaeran gizarteak duen ukazinezko eta funtsezko pisuaren ondoan bestelako zer edo zer ere aurkitzea. Gure aldarrikapena, nolana ere, nahikoa argia da: ontzat eman ditza-

**Gure  
aldarrikapena,  
nolanahi ere,  
nahikoa argia  
da: ontzat eman  
ditzagun  
mintzairari eta  
hizkuntza-  
errealitate  
guztiei  
begiratzeko  
ikuspegi guztiak.  
Erabaki dezala  
norberak, edo  
norberaren  
errealitate  
pertsonal eta  
sozialak, zein  
den berarentzat  
lehentasunezkoa  
edo ezinbestekoa.**

gun mintzairari eta hizkuntza-errealitate guztiei begiratzeko ikuspegi guztiak. Erabaki dezala norberak, edo norberaren errealitate pertsonal eta sozialak, zein den berarentzat lehentasunezkoa edo ezinbestekoa. Eta, ahal dela, jakin ditzagun denak integratzen, eta hizkuntzara hurbiltzeko era guztiek ekar ditzaketen onurak edo ekarpenak onartzen, gureak ez direnak gutxiesteko lanean izerdirik egin gabe, eta, ahal bada behintzat, denetatik ikasiz eta denetatik gozatuz. ●

## 5. BIBLIOGRAFIA

- Bickerton, Derek. (1990). *Lenguaje y especies*. Madrid: Alianza Editorial, 1994.
- Calvin, William H., eta Bickerton, Derek (2000). *Lingua ex Machina. La conciliación de las teorías de Darwin y Chomsky sobre el cerebro humano*. Barcelona: Gedisa, 2001
- Chomsky, N. (1980): *Reglas y representaciones*, Fondo de Cultura Económica: Mexico D.F., (1982).
- Chomsky, N. (1986). *El conocimiento del lenguaje*, Alianza: Madrid, 1989
- Chomsky, Noam (1998). *El lenguaje y los problemas del conocimiento*. Madrid, Visor.
- Fitch W. Tecumseh. (2010). *The evolution of language*. Cambridge: Cambridge University Press, 2010
- Haboud, Marleen (2010). ARGIA, 2.225.
- Jenkins, Lyle (2000). *Biolingüística*. Madrid: Cambridge University Press, 2002
- Lorenzo, Guillermo (2006). *El vacío sexual, la tautología natural y la promesa minimalista*. Madrid: A.Machado Libros.
- Mendivil Giró, José Luis (2003). *Gramática Natural. La gramática generativa y la tercera cultura*. Madrid: A.Machado Libros.
- Mendivil Giró, Jose Luis (2009). *Origen, evolución y diversidad de las lenguas: una aproximación biolingüística*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Monasterio, Xabier (2004). *Mintzairaren miraria*. Donostia: Gaiak, L.G.
- Moreno Cabrera, Juan Carlos (2000). *La dignidad e igualdad de las lenguas: crítica de la discriminación lingüística*. Madrid : Alianza, DL.
- Moro, Andrea (2008). *The boundaries of Babel : the brain and the enigma of impossible languages*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Pinker, Steven (1994). *El instinto del lenguaje*. Madrid: Alianza Psicología Minor, 1995
- Soziolinguistika klusterra (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.